

taiitsira iiralsiii

Irakaskintzan eta azitasunean, lan egokia egiteko ta ondorio onak lortzeko, norabide argi ta egokia erabilli bear dala esaten badugu, arean ez dugu ezer berri agerreraziko. Yakintza guzian eta gogoari dagozkion azpegi orotan ari-izateko, norabide ona izatea bearra baldin bada, orobat irakaskintzan, berdin ere azitasunean.

Norabide ori mail orokarrari egoki dagokioke, bai ta beste mail bereziaz ere, ta mail berezi oien artean Erri bati dago-kiona lendabizietakoa izan bear; ortaz ukatzerik ez, eta gurean, Erri-bizia ain kinka txarrean dagoelarik, gutxiago. Bai, Euzkadi'n naiz irakaskintza naiz azitasuna, egitan, asieran ditugu, ta orrengatik ain zuzen, berentzako norabidea arreta aundienaz begiratzeko dugu.

Eta biak ere gure izaera berean ibiltzeko, ezinbestekoa dalarik, euzkera agertzen da beren azpegi guzietarako erabiltzeko bearra, euzkera baita gure biziari ta onen azpegi guziaz euzkaltzentzua beti emango diena. Orra, beraz, irakaskintza, azitasuna ta euzkera gutiz alkaturik ari bear dirala, bearrezkoak zaizkigun ondorio onak izan ditzagun.

Beste aldetik, eta euzkerak gure Erri'ari here ayurria ematen dionezkerok, orobat gurean egingo dan guziekiko, euzkera

izango dugu beti ezinbesteko bidea, euzkeratik at ezer. ezpaita euzkalduna. Orra, bada, gure bidea, euzkal-biziari eusteko dagoen bide bakarra, baitezpadako bidea. Ba-dirudi, ori orrela ikusteko, aipatzea ere bear-izango elitzakela, ain argia baita, bafia oso sarri, ta orain ere, euzkal-arazoak eta euzkera bera erabiltzeko ere, ain zentzungabeko bide baldarrak aukeratuak izan diralarik, guztiz bearra zaigu zera ortaz zorrotz-zorrotza izatea.

Emen aipatzen ditugun gayak, azken urte auetan eta mende ontan barna ere, maiz aipatuak izan diran arren, al eta ezin, oietxetan egokiro yarduteko, oraindik gu asieran gaudela oartu ta esan bear da, ta orrela egongo gera beti, gai oietarako ta guzietarako gure izkuntza bete-betean erabillita izan arte; obe izango edo litzake, gai oiek eta gure biziaren beste guziak ere, euzkeraz oso ta sakon erabiltzea, uka-ezifia dan baldintza bezela bete arte esatea.

Orrela, euzkal-irakaskintza, euzkal-azitasuna ta euzkal-irazkintza, gaurko ontan beren asieran ditugu, ta beren bidean ibil ditezen, euzkera izango dute beti, norabide egokian aurreratzeko, bide, lagun eta erakusle. Itz batez, gai oietan eta gurean izan ditezken beste guztietan, euzkera dugu ta euzkera izango dugu, gaur eta gero, euzkal-izaeran berean erabiltzeko bide bakarra. Orixe ontzat artu bear dugu, eten gabe, norabide egokian barna aurreratu al-izateko.

Eta orain arte ezina izan zaigu beti gure bide ori erabiltzea; ba-zirudien berez ezina zala ori egitea, bafia ongi dakigu ortaz Laterri'aren eragipena izan dala egite ori burutzeko eragotzi diguna. Gaur gure almenak nolabait zabaldu zaizkigu, neurri motzean ala ere, ta al-izaten zaigunean zertxobait egiteko naiaz asi gera; orra or nun-nai zabaldu zaizkigun ikastolak, asiera ona izateko egokienak izan bear-izango zitzaizkigukeanak..., bana —zergatik bana?— zuzenbide okerrean asi dira ibiltzen, geyenak bederen, guziak ezpadira.

Euzkera batu bear dala-ta, euzkeraren bizirako batutze ori ezinbestekoa dalakoan, jokera bat onartu dute, orri «euskara batua» deitu ta eztago besterik, itsu-itsu sartu zaizkigu artezkari ta irakasleak bide ortan, geron ustez, geyenak arazoa

bear dan bezela begiratu ta sakondu gabe, ta jakintsuak diran batzuek beren jakintzaren itzalaz indartzen dutelarik.

Bafia nun dago «euskara batua»ren batasuna? Inun ez. Laburdiera artu dute bidez eta beste izkelgi guziak bazterturik utzi; nola orrelakoari batasuna deitu?, ori bereizte izugarria egitea bano besterik ezpaita? Em en ere izena ezta izana. Badakigu, gaurko ontan, edozein gauzari, berari ez dagokion izena ematen zaiola, ta gauza izenak adierazten duenez erabiltzen dala, benetan orrela ez izanarren; alabana geuk bederen ezin onar dezakegu jokera ori, egiazkoa eztalako.

Asko mintzatzen da euzkeraren batasunari buruz, eta guri ere batasuneruntz abiatzea egokia deritzaigu; bafia, ona emen argi ikusi bear dana, gure euzkelgien artean, betidanik, ezberdintasuna bano batasun aundiagoa dala. Bai, gure euzkelgi guztietan, aditzaren egitura berbera da, berdin izen-jokoarena, berdin-berdin joskera, atzizki geyen-geyenak ere berberak dira aide orotan; orduan nun dago ezberdintasuna?, nun, batu bear dan ezberdintasuna?; egitan izkelgi guzietan eta bakoitzean, aranen eta errien artean dagoena bakarrik.

Euskaltzaindi'ak, bere biziaren lenengo urteetan «erizki-zundi». egokia eratu ta zabaldu zuen, errietan barna erabiltzen ziran itzak zeintzuk ziran jakiteko; erantzunak asko jaso zituen eta erantzun oiek «Euskera» bere aldizkariaren 1925, 6, 7, 8 ta 1930'garren urteko zenbakietan argitaratu zituen. Eta oietan agertzen diran ezberdintasunak euzkelgi bakoitzaren errienak dira, ez euzkelgien artekoenak; beraz, euzkelgi bakoitza da bertan batasuna egitekoa dana; ta ezberdintasun oiek dira batu bear diranak. Euzkelgien artean dagozen ezberdintasunak, erderakadak dira asko, erdera batzuetatik sartu ta onartuak izan diranak: alakotz, erderakada oien orde euzkal-erroz egin ditezken itz berrien bitartez egin al-izango da batasun egokia. Esate baterako: len, eta mendeetan barna, ain erabillia izan dan «Aita gurea» orderakada aundia, arestian egokiro zuzendu zan «Gure Aita» egiten, eta orain ortaz Erri guziko batasuna egin dago; orra, beraz, egiazko bidea nun dagoen, egiazko norabidea.

Ezin beste oberik inun aurkitu, ta geron ustez euzkal-iraz-

kintzarako orixe bera izan bear ari-izateko egokiena, gure irakaskintza ta gure azitasuna benbenetan euzkaldunak izateko, eta gure Erri'arentzat ondorio egoki ta jatorrak sorrerazi ditezken.

Noski, Ian aundi ortarako, geron baitan iraultzaren antzekoa egin bear-izango dugu, orain arte gureganatu ditugun ezagupen guziak erderaz lortu baitugu, ta orrengatik ain zuzen guztiok erderaz oldoztu bear dugu, erdal-gogoaren morroi izaten; ortan dago gure yoputasun aundia gugandik astandu bear duguna. Ezta ori Ian txikia izango; gurean ezagupenak euzkeraz ikasita izan bear dira ta urte luzeetan barna Erri osoan orrelaxe buruturik. Noizko, ezinbestekoa dugun egipen ori?, ez biarko eiki, urte ta urteak izango baitira bearra Ian *be*rean ari-izatean. Eta orrezaz gogoraturik, bearrena bezela, norabide ona artzea ta eramatea dala, bear-bearrena bezela ikusi bear da. Ezinbestekoa lez dugu, alakotz, norabide ona artu ta eramatea; guzirako, bana batez ere irakaskintzarako, azitasunerako, irazkintzarako.

Zabarkeria ta soraiokeria gugandik gogor astandu bear ditugu; gure erestian barna, euzkerarekiko ta gogolantzeari buruz, oietxek izan dira gure Erri'aren akats aundienetakoak, gure euzkal-bizirako ain kaltegarriak izan diralarik; gurean izan dan jokera itun ori ere ondo ezagutu bear dugu, gure norabidea zuzentzeko. Erruduna izan da ortaz gure Erria ta erru ori, bera izan dan bezela, aitortzea egokia izango zaigu; bana ez aitortu bakarrik, zuzendu ere ta egokienik zuzendu. Orain arte gure Erri'ak, itsu, bere arerioen jokua egin du gegenetan, gure menpekotosunaren aide jokatzen. Gaur, arazoa garbiro ikustean, bertan ere azkatasuna lortzeko alegin aundienak egin bear.

Beti, guzirako, bana batik bat irakaskintzarako, azitasunerako ta irazkintzarako, egiazko norabide ona artzean.

Urtubia